

PLAZA **B**ERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

15-10-1 15.ALEA

Legealdi berria abian

4. ORR. ►►

Ikastaro
ugari herrian

8. ORR. ►►


Azoka
eguna

10. ORR. ►►

Festak
iruditan

11. ORR. ►►





Azken hiru hilabeteak, iruditan

www.zizurkil.eus webgunean azken hiru hilabeteetan jasotako zenbait albiste bildu ditugu irudi bidez. Albisteak, argazkiak, bideoak, datuak... Zizurkilgo atarian aurkituko dituzue eguneratuta.

- 1- Ekainaren 13an izendatu zuen Udalbatzak bigarren alkate Joxe Mari Luengo.
- 2- Azken hiru hilabeteetan bi elkarretaratze egin dira indarkeria matxista salatzeko.
- 3- Zizurkilgo dozenaka lagun Lladó herrian izan ziren uztailean, bi herrien arteko senidetzea indartuz.
- 4- Gerra Zibileko aztarnak azaleratu dituzte aurten ere Aranzadik bultzatu eta Udalak babesten duen auzolandegian.



www.zizurkil.eus

ALBISTEAK

Herri Antzerkia, parte hartzearen arrakasta

Maiatzaren 16an Intxaur frontoia txiki geratu zen eta Irailaren 8an ere jendetza hurbildu zen "Bazan herri txiki bat" pantaila handian ikustera.

100 zizurkildar baino gehiagoren lana ehunka herrikidek gozatu ahal izan dute azkenean. Gehienek maiatzaren 16an zuzenean ikusi ahal izan zuten. Baina izan zen orduan sartu ezinik geratu zenik ere. Horiek irailaren 8an pantaila handian gozatu ahal izan zuten herri ikuskizunaz.

"Arlo guztietatik arrakastatsua izan da Bazan Herri txiki bat... obra. Lehenik, adin eta jatorri ezberdinetako herritarrek bildu zituelako egiteko orduan. Bigarrenik, herri aitortzatik igarotako 400 urteen historia zatitxo bat jasotzeko ere balio izan du. Eta azkenik, ikuskizun arrakastatsua izan da ikusleen aldetik ere", azaldu du antzerkiko parte hartzaile eta gaur egun kultura zinegotzi den Ion Ander Esnaolak. Orain etxean ikusi nahi duenak bi aukera ditu. Udal bulegoetan eskura daude DVD-ak 3 euroren truke eta bestela zizurkil.eus webgunean ere ikus daiteke. Emanaldiaren amaieran parte hartzaileek ohiukatu moduan: 400 urte barru ere esan dezatela, Gora Zizurkil!



Teatro popular, éxito de participación

Bazan herri txiki bat el espectáculo de teatro, música, danza, canto y berto que protagonizaron más de 100 vecinos y vecinas el 16 de mayo sigue en la memoria de muchos y muchas. Prueba de ello, el éxito rotundo que tuvo la proyección de la grabación en la plaza Joxe Arregi. Se reunieron más de 300 personas. Hubo quienes lo vieron por segunda vez, pero también hubo gente que no pudo hacerlo en mayo por falta de sitio. Al final, mucha gente se fue a casa con el DVD bajo el brazo. El audiovisual de la obra de teatro *Bazan herri txiki bat* está a la venta en las oficinas municipales. El precio del video es de 3 euros. Además, también se puede ver en la página www.zizurkil.eus.



3 guraso elkarteak elkarrekin

3 eskoletako guraso elkarteek elkarrekin irteera antolatu zuten irailaren 19an. Urkamendin elkartu ziren guztiak giro ederrean eta eguraldi bikaina lagun. "Oso pozgarria da herritarren ekimen hau, Udaletik beti defenditu dugun eredu da hirurak batera funtzionatzea eta txalotu egiten dugu ekimen hori hartu izana", azaldu du Maite Amenabar hezkuntza zinegotziak. Aurrerantzean ere horrelako gehiago egiteko asmoa dute. "Gure babes guztia izango dute", ziurtatu du Amenabarrek.

Las asociaciones de padres y madres de las 3 escuelas de Zizurkil organizaron una excursión conjunta a Urkamendi el 19 de septiembre

Elikagai bankua martxan

Elikagai bankuak egin du legealdi honetako lehen banaketa. Irailaren 11 eta 12an egin zituzten bolondresak sortak eta 14tik 20ra bitartean banatu zitzaizen beharrea dauden herritarrei. Zizurkil bidezkoagoaren bidean ezinbesteko tresna bihurtu da.

ELKARRIZKETA

“Joxe Arregi plaza gune gisa **indartuko** dugu Udal zerbitzuak zentralizatuz”

Joxe Mari Luengo eta Maite Amenabar dira 2015-2019 legealdian Zizurkilgo alkate eta alkate orde. Luengok bigarren legealdi du alkate moduan eta Amenabarrentzat zeregin berrietara ohitzeko asteak izaten ari dira hauek. Lehen elkarrizketa eskaini diote Plazaberriri.

Legealdi berriak lehen asteak ditu martxan. Nola ekin diozue?

Joxe Mari Luengo: Jarraipen bat da nire aldetik. Udal gobernuan gauden EH Bilduko 6 kideetatik 3k bigarren legealdia dugu. Beste hirurak pixkanaka ari dira martxan hartzen. Aurretik abian dauden proiektuak edukitzeak legealdi hasiera errazten du.

Maite Amenabar: Niretzat hau dena oso berria da. Horrelako kudeaketa esperientziarik ez nuen aurretik eta erronka handia da. Lan gogor eta aldi

berean polita da, herriarentzako gauzak aurrera eramateko aukera duzulako. Gogoz nago. Talde ona dago inguruan eta horrek ere lasaitasuna ematen dizu. Aurreko legealdian zinegotzi izan zirenen babes eta laguntza ere badugu hasiera honetan eta asko eskertzen da.

Legealdi hasiera honetan liberezio terdi izango du Zizurkilgo Udalak...

J.M.L.: Erabaki hori hartzeko hainbat aspektu hartu dira kontuan. Batetik, joan den legealdian ere hasieran liberezio terdi

izan genuela ezin da ahaztu. Orduan Udal ekonomia kaxkarrari buelta eman eta diru kontuak ordenean jartzea zen lehentasuna eta horretan ari zen bereziki Nerea Lizarraga alkate ordea. Bestetik, oraingoan ikusten genuen proiektu oso potoloak zeudela mahai gainean, liburutegi berria, kultur etxearen eraberritzea eta etorkizuneko diseinuaren lanketa... Lan karga handia zegoela argi ikusi zen eta beraz alkate ordea erdi liberatzea erabaki da. Ondoren baloratuko dugu emaitza. Gainera ezin da ahaztu udal

gobernuan aurrekoan baino bi zinegotzi gutxiago garela. Egia esan, ohikoa den liberezio kopurua da Zizurkilen tamainako udaletan.

Aipatu dituzunez, kultur etxeke igogailu eta sarbideen lanak amaitzeaz dira...

J.M.L.: Urriaren erdirako amaitzea aurrirakusten da. Igo-gailuaren lekua prest da eta barnetik eskailerak ere bai. Igo-gailua bera ekarri eta jartzea izango da azken lana. Tabernari zati bat kendu diote lan horiek baina beharrezkoak ziren. Orain, lanak amaituta berriz irekiko da Kultur etxea eta hasieran orain arteko funtzionamendu bera izango du. Obrak 167.000 euroko aurrekontua du eta 73.500 euroko diru laguntza lortu dugu. Lanak amaitzearekin bat eraikinaren fatxada pintatu ere egingo da.

M.A.: Aipatu behar da ikasta-

roak urrian hasi ordez, azaroan hasiko direla aurtan lan horien eraginez. Jendea barkamenak eskatzen dizkiogu. Udan egin ditugu lanak baina dena ezin izan da bukatu irailerako. Joxe Mari zioen moduan, hasieran orain ezagutzen dugun moduko kultur etxea izango dugu, baina egia da, ondoren, liburutegi berriaren ondorioz libratzen den espazioarekin lanketa eder bat egin nahi dugula eraikina herriaren beharretara egokitzeko. Herriarrek erabaki beharko dute etorkizuneko kultur etxea nola irudikatzen duten. Legealdiko parte hartze proiektu indartsuenetako bat izatea nahi dugu.

Liburutegi berria aipatu duzue, ekaina amaierako ple-noan eman zenioten onarpena EH Bildu eta PSeren babesarekin...

J.M.L.: Hasi berriak dira la-

nean. Joxe Arregi plazako lokalak Udalak eskuratu zituen duela lau urte eta hor hasi zen proiektua da gauzatzen ikusiko duguna. Liburutegi erreferentia egin nahi dugu Aiztondo bailararentzat, beste Udalen iritzia ere aintzat hartuz. Gogoratu 250.000 euroko diru laguntza duela proiektuak Tolosaldean aurreko Aldundiak bultzatu zuen aurrekontu parte hartzaileen prozesuan aukertutako bat izan baitzen. Obrak udaberri aldera arte luzatuko dira ziurrenik. 300.000 euroko aurrekontua dugu aurtan eta datorren urteko aurrekontutik ere diru partida bat destinatuko da.

M.A.: Liburutegi berriak hainbat espazio izango ditu: Umeentzako bebeteka bat, haur eta gaztetxoentzako gune bat, areto balioanizta, eta helbidegoek azterketako garaian ikas dezaten isiltasun gela bat



ere izango du, eta hori dena teknologia berriei ekipatua. Gaur egun gazte jendea Donostira joan ohi da ikasteko eta hemen ere espazio hori sortu nahi dugu. Aduna, Asteasu, Larraul eta Alkizako Udalekin proiektua aberasteko batzorde bat osatu dugu. Gero, aipatzekoa da gaur egun Aurreran dagoen udal bulegoa ere bertara igaroko dela, bai harrera eta baita kulturako langileak ere. Nolabait esanda, Joxe Arregi plazan zentralizatu

egingo dira udal zerbitzuak, ekonomikoki eraginkorragoak izateko eta herritarrentzat eskuragarriago egoteko. Beheko herri gunea indartzeko modu bat ere bada, zerbitzu nagusiak plazan kokatuz.

Aterpearen proiektua zertan da?

J.M.L.: Proiektua aspalditik dago landuta eta herritarren eskaera izanik garrantzia du baina ikusi zen plaza inguruan

ELKARRIZKETA



Otañoko parkea berritu da.

6

hainbeste obra batera ez zela komenigarria. Aterpearena bi hilabeteko obra izango da eta epeengatik aurreko bi obrei lehentasuna eman zaie, nahiz eta guretzat funtsezkoa den aterpea ere. Aurretik esan izan dugun bezala, helburua da renting moduan egitea, urtero zati bat ordainduz. 200.000 euro inguruko kostua izango du baina uste dugu Joxe Arregi plaza inguruarentzat ezinbestekoa dela.

Hasita dauden obrak Oria ibaiaren berbideratzeko lanak dira...

J.M.L.: Udalek hitzarmena sinatu zuten Jaurlaritzaren Ura agentziarekin eta Jaurlaritza da obra daramana. Gure kezka nagusia inguruko komertzioarena izan da. Horrela, lokal aldaketaren bat Udalak berak finantzatuko du. Zubi autoeskolakoek ezinezkoa izango dute epe batez bertan aritzea eta beraz gune berri bat aurkitzen ari gara elkarlanean. Kontuan hartu behar dugu Zubimusuri bi begi zabaldu egingo dizkio-tela lan hauetan eta ondorioz hilabete batzutan trafikoa ere

«*Herritarrek erabaki beharko dute etorkizuneko kultur etxea nola irudikatzen duten*»

itxi egingo dutela. Hori bai, oinezkoentzako bidea libre uztea eskatu diegu guk eta oso une puntualetan soilik itxiko dutela hitz eman digute. Lan luzeak izango dira, urtebete ingurukoak, 2 milioi pasako aurrekontua dute eta pazientzia beharko dute inguru horretako herritarrek. Uholdeak ekiditeko neurriak dira eta luzera begira onuragarriak. Hala ere, guk beti esan dugu beheko plaza inguruan Asteasu erreka-ren bideratzea dela Zizurkilen uholdeak ekiditeko egin beharreko lana. Hori beste fase bat da eta lehenbailehen egiteko eskatzen jarraituko dugu.

Beste obrarik aipatu nahi du-zue?

J.M.L.: Danenako aldagelak amaitu dituzte. Denboraldia hasterako aldagela berriak izango dituzte. Ea emakumeak animatzen diren futbolera.

M.A.: P.M. Otañoko parkea ere eraberritu da. Hau ere udan egin da, ahalik eta gutxien eragiteko. Lurra berritu eta joko berriak ere jarri dira. Parke guztien azterketa eginda

dago aurreko legealdian eta parkeak pixkanaka berritzea da gure asmoa. Zizurkil Goikoa eta Otañokoa egin dira azken urteetan eta hurrengo Ogi Zuri ingurukoak izango da, ahal dela datorren urtean.

J.M.L.: Udan egin beharreko lana zen parkearena, Atxulondoko kultur etxekoa bezala, herritarrei ahalik eta gutxien eragiteko. Hauteskunde kanpaina aurretik egitea izan zitekeen guretzat onena baina botoak ez dira helburu bakarra. Uste dugu arduraz jokar-tuta obrak ahal dela eragin txikiena izango duten garaian egiten saiatu behar dugula.

Edozein obra egiteko garrantzitsua da Udalaren finantzen osasuna. Zein da legealdiko helburua?

J.M.L.: Oraindik behintzat zorra murrizten jarraitu behar dugu eta ahal dela ez zorpetzen. Milioi bat euroko zorpetzetik jaistea da helburua, orduan hasiko da zorra jasagarri bihurtzen. Aurten ere mailegurik eskatu gabe amaituko dugu urtea.

«*Oraindik behintzat zorra murrizten jarraitu behar dugu eta ahal dela ez zorpetzen, miloi bat eurotik beher jaitsi arte.*»

Hitz egin dezagun langabezia. Zizurkilek %15eko langabezia tasa du azken datuen arabera. Garai batean Perot zegoen tokian enpresa berri bat kokatzeak hori arinduko duela uste duzue?

J.M.L.: Enpresa honen kokatzea hilabete luzeetako negoziazioen fruitua da eta alde ezberdinetatik ziur egon arte ez dugu ezer esan nahi izan. Ingurumen txostenak ere eskatu ditugu eta ziurtasun horrekin egin dugu aurrera. 30 lanpostu inguru sortzea aurrirakusten dute eta euren konpromezua badugu ahal diren guztiak zizurkildarrak izateko. Uste dut horrelakoak direla langabeziaren aurkako neurri onenak. Herritarrei jakinarazi diegu webgunearen eta prentsaren bidez eta badakigu curriculum ugari jaso dituztela. Enpresa pribatua da eta Udalak honaino egin ahal izan du. Era berean, kokapen honekin, Perot itxi ondoren fabrika abandonatuta gertatzeak zituen arriskuak sahietsi ditugu.

Langabeziak dakar askotan pobrezia. Gizarte zerbitzuetatik elikagai bankuarekin jarraitzeko asmoa duzue?

M.A.: Bai, legealdiko lehen banaketa egin dugu eta horrela jarraitzeko asmoa dugu. Eskertzekoa da bolondresen lana, euren gaitik ez balitz bankuak ez luke funtzionatuko. Hiru hilero egiten jarraitzea da asmoa. Laguntza jasotzen duten hainbatek ere laguntzen du elikagai bankuan. Herritar eta Udaleko ordezkariak talde txiki bat sortu dugu hau koordinatzeko. Gainontzean, gizarte zerbitzuei eusteko konpromezu sendoa dugu.

AHT-ren auzian, zertan da hormigoi plantaren auzibidea?

J.M.L.: Lehen instantzian galdu egin genuen baina gure zerbitzu juridikoek argi diote arrazoi dugula eta helegitea jarri dugu. Proiektuan ez zegoen hormigoi planta bat egin dute eta lizentzia guk eman gabe. Jaurlaritza eta enpresa handiak ditugu aurka baina aurrera jarraituko dugu.

Efizientzia energetikoaren auzian, argiteria berritzeko proiekturik bada?

J.M.L.: Hemen ere azterketa egin dugu auzoz auzo eta badakigu non dauden hutsuneak. Jartzen ditugun berri guztiak LED argiak dira eta gure asmoa da diru laguntza lortu eta auzoz auzo berritzen joatea. Argiteria zaharra dugu eta pixkanaka eraberritu behar dugu. Baina kostua handia dute eta diru laguntzen bidetik jorratu nahi dugu.

Kanpainako ardatzetako bat merkataritzaren sustapena izan zen...

J.M.L.: Ez gaude ahaztuta. Guretzat lehentasuna da eta hurrengo urteko aurrekontuetan izango du bere islada. Tolosaldea Garatzen ere hor dago, eta lanketa garrantzitsua da. Helburua da behintzat lehen beharretarako produktuak erosteko aukera izatea herrian. Aterpearekin batera azokaren ideia ere ez dugu baztertuta.

Udalbatza berria

Udal gobernua:

EH Bildu

Alkatea. Hirigintza, pertsonal eta ekonomia arduraduna: Joxe Mari Luengo

Alkateordea, euskara, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak: Maite Amenabar

Kultura eta parte hartzea: Jon Ander Esnaola

Giza eskubideak, internazionalismoa eta parekidetasuna: Eva Usandizaga

Ingurumen eta nekazaritza: Aitor Sarasua

Gaztedia eta Kirolak: Arkaitz Zaldua

Oposizioa

EAJ-PNV:

Maria Angeles Lazkano

Olga Aldaz

Nuria Martin

Jesus Mari Alkorta

PSE-EE:

Jose Antonio Sanchez

“Centralizaremos los servicios municipales en la plaza Joxe Arregi”

En los primeros compases de la nueva legislatura, Plazaberri ha charlado con el alcalde Joxe Mari Luengo y la nueva teniente alcalde Maite Amenabar. Nos han hablado de los proyectos que afrontan en esta primera parte de la legislatura. Entre ellos, están la casa de cultura y la nueva biblioteca. “Las obras de acondicionamiento de Atxulondo finalizarán a mediados de octubre.

El último trabajo será la colocación del ascensor y también se pintará la fachada. Los cursillos comenzarán en noviembre en vez de octubre. Hemos intentado realizar todos los trabajos en verano pero ha habido un pequeño retraso y pedimos disculpas”, ha explicado Amenabar.

La nueva biblioteca

La casa de cultura abrirá sus puertas con la distribución

actualmente conocida pero en breve llegará el cambio con la nueva biblioteca. “Acaban de comenzar los trabajos para acondicionar la nueva biblioteca en los locales de la plaza Joxe Arregi. Los trabajos se alargarán hasta primavera. La biblioteca contará con diferentes espacios para distintas edades, también tendrá una sala de estudio para los adultos; todo ello equipado con la última tecnología.

Además, las oficinas municipales de Aurrera se trasladarán al mismo edificio centralizando así los servicios en la plaza, de un modo más eficiente y accesible para los y las zizurkildarras”. Tras la puesta en marcha de la biblioteca, Amenabar adelanta que se abrirá un proceso de reflexión sobre la distribución de la casa de cultura, “un proyecto que queremos diseñar entre todos y todas”.

El encauzamiento

Ya han comenzado las obras de encauzamiento del río Oria. La agencia Ura del Gobierno Vasco es la responsable de los trabajos tras la firma del convenio con los ayuntamientos. “Nuestra preocupación han sido los comercios de la zona de Zubimusu. En el caso de la autoescuela, el Ayuntamiento se hará cargo de su traslado puntual, ya que no podrán trabajar en las dependencias

actuales durante algunos meses. Las obras en Zubimusu durarán un año y en la fase central de la misma se cerrará el paso al tráfico. Desde el Ayuntamiento hemos insistido en mantener el paso para peatones y nos han asegurado que los cortes que se hagan serán mínimos”, explica el alcalde. Por otro lado, el Ayuntamiento seguirá exigiendo al Gobierno Vasco el encauzamiento de Asteasu Erreka a la altura de la plaza Joxe

Arregi. “A nuestro entender esa es la obra definitiva para evitar futuras inundaciones”.

Otras obras

En cuanto a otras obras, Luengo ha explicado que han finalizado los nuevos vestuarios de Danena y el parque infantil en la escuela P.M. Otaño. “Estas obras como las de la casa de cultura, eran importantes realizarlas en verano. Para nosotros hubiera sido más

rentable realizarlas antes de la campaña electoral, pero creemos en hacer las cosas cuando sean menos molestas para los y las zizurkildarras”. En cuanto a las finanzas municipales, el alcalde explica que el Gobierno municipal seguirá reduciendo la deuda y sin pedir ningún préstamo. “El objetivo es bajar hasta llegar a una deuda sostenible, una deuda menor a un millón de euros”.

ERREPORTAIA

Urtez urte, kultur eta kirol eskaintza **zabaltzen**

2015-2016 ikasturtean, lehendik martxan zauden ikastaroak mantentzeaz gain, herritarren eskaerari erantzunez, eskaintza berri ugari egin ditu Udalak. Plazaberrin Zizurkilgo eskaintza osoa laburbiltzen saiatu gara. Haur, gazte eta heldu, aurten ez dago aspertzeko betarik!

Non aukeratua helduentzat

Atxulondo eta Iriarte kultur etxean lekutuko dira ikastaroak: Atxulondon, lehendik ematen ziren sabel dantza, patchwork, pilates, yoga eta zumba ikastaroak mantenduko dira. "Zumbaren kasuan, iaztik jaitzi egin da izen emateen kopurua. Bi talde genituen, eta aurten, talde zein ordutegi bakar batera jaitzi dugu beste ikastaroei ere lekua egiteko", dio Ainhoa Larrea kultura teknikariak. "Dena den, gustura gaude, jende berri askok eman baitu ikastaro honetan izena, oraindik modan dagoen seinale". Forman jar zaitez ikastaroa ere eskaini da, baina ez da talderik osatu. Bestalde, berrikuntza bezala, sabel dantzako irakasle beraren eskutik, munduko dantzak ikasteko aukera ere izango da aurten.

Iriarte Kultur Etxean berriz, urteak daramatzan eskaintzari heldu dio Udalak eta erantzun ona eman diete herritarrek: "18 urte darama es-

kulan-ikastaroak, eta aurten ere osatu da taldea. Berdin helduentzako gimnasiarekin."

Ikastaro berriei dagokierik, badu arantzatxo bat kultura sailak. Izan ere, helduentzako antzerki tailerra osatzerik ez da lortu. "Herri antzerkiak sortutako olatua baliatu eta antzerkia lantzeko taldetxo bat sortzea zen asmoa, baina ez du jende nahikoak eman izena", azaldu du Larreak. Oraindik ez dute etsi ordea. "Urte osorako konpromiso bat hartzea gehiegi izan daitekeela uste dugu, eta horregatik, polikiago hasi eta hiru hilabeteko tailertxo bat eskaintzea pentsatu dugu". Urrian zabalduko da izena emateko epea. Tailerra Iraitz Lizarraga zizurkildar aktoreak zuzenduko du.

Emakumeak eta kirolak uztartuz, *Neska, zatoz korrika!* ekimena martxan da dagoeneko. Aitziber Ibarbiaren gidaritzapean, Otañon elkartzen dira ostiralero arratsaldeko 18:30etan. Eta

Zizurkil Goiko Intxaur frontoian, palan aritzeko aukera ere bada emakumeentzat. "Izquierda atera eta ondo pasatzeko helburua du ikastaroak, eta izen ematea zabalik dago urte osoan", adierazi du Ainhoa Garmendia irakasleak. Horretarako, *ainhoa.pilota@kirolak.net* helbidera idatzi edo 655719492 telefonora deitu besterik ez da egin behar. Astearteetan elkartzen dira arratsaldeko 19:15etatik 20:45era.

Azkenik, jubilatutako elkartek yoga, eskulanak eta joskitza tailerrak antolatu ditu aurten ere. Atxulondo kultur etxean izango dira hauek.

Txikiak hamaita aukera

Iazko urtera arte, Bukalai dantza taldeak antolatzen zituen dantza ikastaroetara mugatzen zen udalak txikiak egindako eskaintza. Ikasturte honetan, gurasoen eskariari erantzun nahian, eskaintza hori zabaldu egin da. "Batik bat, futbola

ez den kirolak egiteko aukera nahi zuten gurasok", aipatu du Larreak, "horregatik, interesgarria iruditzen zitzaien kirol bat baino gehiago lantzeko aukera ematen duen ikastaroa antolatzea", jarraitu du. Gauzak honela, hiru hilabeteko kirol ezberdin bat landuko

«Futbola ez den kirolak egiteko aukera nahi zuten gurasok»

dute 2009-2011 urte artean jaiotako haurrek Multikirolak ikastaroan: atletismoa, patinajea eta txirrindularitza. Eskaintzak arrakasta handia izan du. Zertxobait helduek direnentsat, 2005-2011 urte artean jaiotakoentzat, gimnasia erritmikoa antolatu da. "Eskari handia zegoen, eta izen emateak ere asko izan dira".

Bukalai dantza taldean berriz, 70 lagunetik gora ari-

tuko dira dantzaz. "Guztira, adinaren arabera bost talde ezberdin dituzte. Denek asteazkenetan izango dituzte entseguak; batzuk Atxulondon, besteak Otañon eta beste batzuk Elbarrenako elizako lokaletan". Eta ezin ahaztu Loatzoko musika eskola. Aurten 16 musika instrumentu erakutsiko dira haur zein helduentzat. "100 ikasle zizurkildar inguru izango ditu aurten".

Danena, neska taldea sortzen

Aurtengo ikasturteko erronka izan da nesken futbol taldea sortzea. 1999-2002 urte artean jaiotako neskak animatu nahi dituzte kirol elkartetik taldea osatzeko.

«Bukalai dantza taldean 70 neska-mutil ariko dira aurten»

Era berean, 2005 eta 2007 artean jaiotako neska zein mutilentzat ere bada tokia, eta izena emateko garaiz daudela adierazi dute. Interesatuak 610697129 telefono zenbakira deitu dezakete.

Ziotza Pilota Eskola

Esan bezala, futboletik haratago, Zizurkilgo bada bai mutil eta bai neskenentzat beste kirolekin aritzeko aukera. Ziotza Pilota Eskolak adibidez zortzigarren den-

boraldia du aurtengoa. "Aurre benjaminetatik (7-8 urte) nagusien mailara arteko pilotariak ditugu. Aurten iazko izen emate kopuruari eutsi diogu eta 58 haur inguru izango dira", adierazi du Manuel Erasun pilota eskolako arduradunak. 7 urtetik 9 urte artekoentzako saioak astean behin Otañoko frontoian ematen dira, eta 9 urtetik gorakoentzat Intxaur Frontoian. "Bigarren ikasturtea da Otañon eskolak ematen ditugula eta 13 haur inguru elkartzen dira bertan". Erasunek ziurtatu duenez, taldeak edo bikoteak osatu ezinik geratuz gero, Aitzondoko gainontzeko pilota eskolekin hitz egin eta pilotariak jokatzeko modua izaten dute.

Gaztezulo: urritik aurrera ordutegi berria

Herriko eskaintzak errepasatzen hasita, ezin ahaztu Gaztezulo, gazteentzako zerbitzua. Erabat dohainik eta inongo konpromisorik gabe, gazteei elkartzeko leku bat eskaintzeaz gain, Izaskun Sarasola hezitzaileak antolatutako hamaika ekintzetan parte hartzeko parada izaten dute. Urritik aurrera, zerbitzuak ordutegi berri izango du: Astelehene eta ostegunetan 17:00etatik 20:00etara 9 eta 12 urte arteko gazteenentzat zabalik egongo da; eta ostiral zein larunbatetan, ordutegi berean, 13 eta 17 urte bitarteko txanda izango da. Urrirako ekitaldi mordo antolatuko dute, animatu!

Año a año, ampliando la oferta cultural y deportiva

En el curso 2015-2016, además de mantener los cursos de yoga, manualidades y costura, se han ofertado otros nuevos, en respuesta a las peticiones de los y las zizurkildarras.

En el caso de los adultos, se mantienen Patchwork, Pilates, Danza del vientre, Yoga y Zumba, Y como novedad habrá un curso de danzas del mundo. Eso en la casa de cultura Atxulondo. En Iriarte seguirán las manualidades y gimnasia para mayores. Además, en Atxulondo se

impartirán los cursos organizados por el hogar del jubilado: Yoga, manualidades y costura.

Para los más jóvenes, Bukalai Dantza Taldea se encuentra en plena forma: Este año comenzarán con 70 alumnos y alumnas de distintas edades.

Deportes

La oferta deportiva es muy amplia en Zizurkil. Dirigida a mujeres, ya está en marcha *Neska Zatoz Korrika!* de la mano de Aitziber Ibarbia

todos los viernes a la tarde. También se ofertan cursos de pala para mujeres en el frontón Intxaur. La inscripción sigue abierta todo el año en el email *ainhoa.pilota@kirolak.net* o en el teléfono 655719492.

Para los más pequeños, por petición de los padres y madres, el ayuntamiento ha ofertado Multideporte (deportes no convencionales) y Gimnasia rítmica. Los dos cursos, se impartirán por primera vez, y han tenido una gran acogida.

En Cuanto al Danena, el reto ha sido crear un grupo femenino de fútbol. Quieren animar a las mujeres nacidas entre 1999 y 2002, ya que, a pesar de que el equipo está en marcha, necesitan refuerzos. Del mismo modo la inscripción está abierta para niños o niñas nacidas entre el 2005 y el 2007. Los interesados deben llamar al 610697129. Por último Ziotza pilota eskola también está en marcha con 58 pelotaris de distintas edades.

ALBISTEA

Adin nagusira iritsi den **azoka**

18 urte igaro dira lehen azoka egin zenetik. Aurtengoan ere izango da zer ikusi

Aurreko urteetako bideari jarraituz, artisau eta elikagai postuen artean, 50 stand inguru izango dira aurtengo frontoian eta Teodoro Herandoren kalean. Horien artean egongo dira herriko artisauak eta baserritarrak ere. Zoritzarrez, ordea, base-riaren gainbehera sumatzen da azokan ere. "Urtez urte jaisten doa azokan parte hartzen duen herriko base-ritarren kopurua, hori dela eta, inguruko baserritarrak gonbidatu ditugu aurtengo baratzeako produktu freskoak bere lekua izan dezan", nabarmendu du Aitor Sarasua nekazaritza zinegotziak. Aurtengo beste berrietasunetako bat, frontoian izango da. Itsasoari keinu bat egingo zaio, Maribeltz euskal batela ikusi ahaliko baita, arrantzaileen bizimoduaren adierazle. Ohi bezala, herri bazkaria ere egingo da zimiterioan, txartelak salgai daude Iriarte eta Egarri jate-teenetan, 20 eurotan.

Emakumeen indar erakustaldia

Arratsaldean, emakumeen giza froga erakustaldia izango da Plazaberrin, Oiartzun eta Zeanuriko 9 emakume taldeak ariko dira nor baino nor. Eta eguna amaitzeko, Bihozkada taldeak kontzertua eskainiko du 20:00etan P.M. Otaño plazan, talde sortu berri honen kantuak ezagutzeko aukera izango da. Autobusa ibiliko da doan Elbarrenatik Zizurkil Gora bidean. Zaldia pareko biribilgunean eta Zubiaurretxoko bidegurutzean egingo du geldialdia.

Bien bitartean, azokaren testuinguruan, urriaren 2an, Jakoba Errekondoren bisita izango dugu Zizurkil. Bizi Baratzeari bere liburuaren aurkezpen solasaldia izango da eta herritarren galdera guztiak argitzeko prest izango da baratze zain ezaguna.

Zizurkilgo festa batzordeak eta Udalak eskuz landu dute aurtengo egitaraua eta herritar ugari izango dira borondatez lanean Azoka Eguna behar bezala atera dadin.

Egitaraua

Urriak 2, 19:00, Iriarte kultur etxea
Jakoba Errekondo Zizurkil

Urriak 11
XVIII. Azoka Berezia

11:00 Azokaren irekiera

12:00 Haurrentzat puzgarriak eta jolasak

14:30 Bazkari herrikoia zimiterioan

17:00 Haurrentzat poniak, puzgarriak eta jolasak

18:30 Emakumeen Giza proba desafioa: Oiartzun-Zeanuri

20:00 Bihozkada taldearen kontzertua

11 de Octubre, Feria Especial de Zizurkil

Como todos los años, el casco urbano de Zizurkil Goia se llenará de puestos de artesanía y baserritarras. Habrá unos 50 puestos en total. Como novedad, se hará un giño a la tradición arrantzale con la exposición de un típico batelero

en el frontón.

A la tarde, se podrá disfrutar de giza froga entre dos equipos femeninos. Recordad que cada 5 minutos saldrá un autobús de Elbarrena que efectuará parada en Zaldia y en el cruce de Zubiarretxo.

Festak argazkitan

2015eko jaiak iragana dira jada. Herrian ditugun bi festa batzordeen lanari esker, festa parte hartzaileak izan dira aurtengoak ere. Bejondeizuela!



Oilasko biltzearen ondoren soka dantzaren ohitura berri zuten.



Abuztuaren 15ean, Jexux Mari Irazu bertsolariak oroigarria jaso zuen amabirjineta berto saiora 20. urtez etorri zelako.



Erraldoi eta buruhandien konpartsak Añorgako laguntza izan zuten goiko kaleak eta plaza alaituz.



Los y las más mayores también disfrutaron de la fiesta con diferentes actividades.



Bukalai dantza talearen emanaldiak jendetza erakarri zuten Joxe Arregi plazara.



Asto karrera eta moztaroen beste urte batez jai giroa alaitu zuten.

HERRITARREN TXOKOA

IKER URRUZOLA



“Geldirik egoten banaiz nekatu egiten naiz”

Bere etxeko garajea topatu dugu txepetxa buruhandiari mokoia liztzen

Erraldoi eta buruhandien konpartsaren sustatzaile nagusia izan zara. Zerk mugiarazi zintuen?

Beti gustatu izan zaizkit erraldoiak. Udararo melokotoiarentzako karroza egiten, beti nuen buruan “erraldoi bat egin behar dut”. Joxe Mari alkatearekin honi buruz hizketan hasi, eta herrirako erraldoiak sortu behar genituela erabaki genuen.

Zer ematen die erraldoi eta buruhandiek herri bati? Zer eman die Zizurkili?

Ez dugu horrenbesteko bizipozik ikusi herrian hain gauza sinplearekin. Ez bakarrik kalera atera ditugunean, Joxe Arregiko lokaletan egon direnean ere, haurrak gerturatu egiten ziren haiek ikustera, eta atzetik gurasoak ere bai. Festa giroa ekarri dute finean, herri giroa.

Oso harro somatzen zaitugu erraldoi eta buruhandiekin?

Bai, harro nago: Etxean egin ditugulako, Udala inplikatu egin delako eta ezkutuan geratzen diren

norbanakoen laguntza handia jaso dugulako. Jantziak egin dituzten jubilatua, musikariak, dantzatza ateratzen direnak, buruhandiak eramaten dituztenak, furgoneta kargatzen dutenak... Denontzat “gure erraldoiak” dira, eta horrek poza ematen du.

Nolakoa izan da konpartsaren sortze prozesua? Nola bizitu duzu?

Figurak sortzeak bere lana eman zuen, baina jendea biltzea oso erraza izan da. Txepetxakoei laguntza eskatu eta baiezkoa eman ziguten segituan. Musika-riek ere baiezkoa, buruhandiek ere berdin. Hogeita hamar lagun elkartu gara azkenean.

Otaño erraldoia “Bazan herri txiki bat” herri antzerkiaren estreinaldian aurkeztu zenuten. Ez dugu berehalakoan ahaztuko esperientzia hura...

Elbarrenako jaietan proiektzioa ikusten oraindik emozionatu egin ginen. Nola da posible Zizurkil bezain herri txikian borondate hutsez horrenbeste jende



mobilizatzea? Ezagutzen ez genuen jendea ezagutzeko aukera eman digu, eta gure artean etzegoen lotura bat sortu da. Niretzat hori mundiala da.

Erraldoiak dantzaten, pregoilariz jantzita herri antzerkian edota blusen egunean parrilan. Ez zara geldi egotekoa...

Txikitatik jaso nuen besteengatik gauzak egiteko irrika. Geldirik egoten banaiz nekatu egiten naiz.

Pasa berri diren jaien antolatzaile den festa bat-zordean ere bazabiltza. Zer moduzko Osasuna dute festek?

Oso jende ona dago isilean izugarrizko lana egiten duena, eta horrek ekartzen ditu emaitzak. Aurten ere

parte hartze handiko jaiak izan ditugu.

Esaiguzu...

Zizurkilgo pertsonaia bat:

Kolektibo bat aukeratu nuke: Beste inori ezer kendu gabe, Danena Kirol elkartearen gurasoak egiten ari diren lana azpimarratu nahi dut.

Zizurkilgo leku bat:

Joxe Arregi plaza, lehen, orain eta beti.

Zer du faltan Zizurkilek?

Elbarrena auzoan estalpe bat, ekitaldientzat aterpea emango ligukeena. Eta horrez gain, goiko eta beheko auzoen lotura.

Zer du soberan?

Jende hipokrita.

B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartze
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.